

This is an unofficial translation of the GNU Lesser General Public License into Basque. It was not published by the Free Software Foundation, and does not legally state the distribution terms for software that uses the GNU LGPL—only the original English text of the GNU LGPL does that. However, we hope that this translation will help Basque speakers understand the GNU LGPL better.

You may publish this translation, modified or unmodified, only under the terms at <https://www.gnu.org/licenses/translations.html>.

Hau GNU Lizentzia Publiko Orokor Murriztuaren (GNU Lesser General Public License) euskarazko itzulpen ez ofizial bat da. Itzulpen hau ez du Software Librearen Fundazioak (Free Software Foundation) argitaratu, eta ez ditu legalki zehazten GNU LGPL erabiltzen duen softwarea banatzeko baldintzak. Hori GNU LGPLren ingelesezko jatorrizko testuak baino ez du egiten. Hala ere, itzulpen hau euskaldunei GNU LGPL hobeto ulertzen laguntzeko asmoarekin egin dugu.

Itzulpen hau argitara dezakezu, aldatuta edo aldatu gabe, baldintza hauek betetzen badituzu soilik: <https://www.gnu.org/licenses/translations.html>.

GNU LIZENTZIA PUBLIKO OROKOR MURRIZTUA

3. bertsioa, 2007ko ekainaren 29a

Copyright © 2007 Free Software Foundation, Inc. <<https://fsf.org/>>

Edonork egin eta bana ditzake lizentzia-dokumentu honen hitzez hitzeko kopiak, baina debekatuta dago dokumentuan aldaketak egitea.

GNU Lizentzia Publiko Orokor Murriztuaren bertsio honek barne hartzen ditu GNU Lizentzia Publiko Orokorren 3. bertsioko baldintzak, eta osatu egiten ditu aurrerago zerrendatzen diren baimen gehigarrien bidez.

0. Definizio osagarriak.

Dokumentu honetan, «Lizentzia hau» esaten denean, GNU Lizentzia Publiko Orokor Murriztuaren 3. bertsioa (GNU-LGPL v3) esan nahi da, eta «GNU GPL» esaten denean, GNU Lizentzia Publiko Orokorren 3. bertsioaz ari gara.

«Liburutegia» da Lizentzia honen menpean dagoen babestutako lan bat, Aplikazioa edo Lan Konbinatua ez dena, behean ematen diren definizioen arabera.

«Aplikazioa» da edozein lan Liburutegiak eskaintzen dituen interfazeetako bat erabiltzen duena, baina, gainerakoan, Liburutegian oinarrituta ez dagoena. Liburutegiak definitutako klase baten azpiklase bat definitzea, Liburutegiak eskaintzen dituen interfazeetako bat erabiltzeko modutzat joko da.

«Lan Konbinatua» da Aplikazio bat Liburutegiarekin konbinatuz sortzen den lana. Lan Konbinatua egiteko erabili den Liburutegiaren bertsio zehatzari «Bertsio Lotu» ere deitzen zaio.

Lan Konbinatu baten «Dagokion Gutxieneko Iturburua» da Lan Konbinatuari Dagokion Iturburua, kanpoan utzita Lan Konbinatuaren zati bakoitzaren iturburu-kodea, baldin eta zatiok, banan-banan aztertuta, Aplikazioan oinarritzen badira, eta ez Bertsio Lotuan.

Lan Konbinatu baten «Dagokion Aplikazio Kodea» da Aplikazioaren objektu-kodea eta/edo iturburu-kodea, barne hartuz, Aplikaziotik abiatuta Lan Konbinatua erreproduzitzeko behar diren datuak eta utilitate-programak, eta kanpoan utziz, Lan Konbinatuaren Sistema Liburutegiak.

1. GNU GPLren 3. atalaren salbuespena.

Babestutako lanak helaraz ditzakezu, Lizentzia honetako 3. eta 4. atalen arabera, GNU GPLren 3. atala kontuan hartu gabe.

2. Aldatutako bertsioak helaraztea.

Liburutegiaren kopia bat aldatzen baduzu, eta, zure aldagokietan, erraztasunen batek loturarik baldin badu, erraztasun hori erabiltzen duen Aplikazioak eman beharreko funtzio batekin edota datuekin (erraztasunari deitzean argumentuak pasatze hutsetik haratago), aldatutako bertsioaren kopia bat helaraz dezakezu, modu hauetan:

- a) Lizentzia honekin, baldin eta borondate oneko ahalegin bat egiten baduzu, Aplikazioak funtziorik edo daturik ematen ez duenean ere, erraztasunak funtzionatzen jarraitzen duela bermatzeko, eta ongi egiten dituela gainerako zati

esanguratsuak, edo

b) GNU GPL lizentziarekin, Lizentzia honen baimen osagarriak kopiari aplikatu gabe.

3. Liburutegiko goiburu-fitxategietako materiala duen objektu-kodea.

Aplikazio baten objektu-kodearen formak bere barnean eduki dezake Liburutegiaren zati den goiburu-fitxategi bateko materiala. Objektu-kode hori zuk hautatutako baldintzen arabera helaraz dezakezu, baina kontuan izanda ezen, gehitutako materiala ez bada mugatzen zenbaki-parametroetara, datu-egituren antolaketara eta atzitzailleetara, edo makro txikietara, txertatutako funtzioetara eta txantiloietara (hamar lerro edo gutxiagoko luzera), honako bi baldintza hauek bete beharko dituzula:

- a) Ohar nabarmen bat erantsi objektu-kodearen kopia bakoitzari, garbi adierazteko Liburutegia erabiltzen duela eta Lizentzia honek babesten dituela bai Liburutegia, bai haren erabilera.
- b) Objektu-kodearekin batera eman GNU GPLren kopia bat eta lizentzia-dokumentu hau.

4. Lan konbinatuak.

Lan Konbinatu bat helaraz dezakezu, zuk hautatutako baldintzen arabera, baldin eta baldintzok, beren osotasunean, ez badute benetan mugatzen Lan Konbinatuan sartutako Liburutegi-zatietan aldaketak egitea eta aldaketa horiek arazteko atzerantzko ingeniari-tza, betiere baldintza hauek betetzen dituzu:

- a) Ohar nabarmen bat erantsi Lan Konbinatuaren kopia bakoitzari, garbi adierazteko Liburutegia erabiltzen duela eta Lizentzia honek babesten dituela bai Liburutegia, bai haren erabilera.
- b) Lan Konbinatuarekin batera eman GNU GPLren kopia bat eta lizentzia-dokumentu hau.
- c) Lan Konbinatuak egile-eskubideen oharra erakusten baditu exekutatzeko ari den bitartean, Liburutegiari buruzko oharra gehitu ohar horien artean, baita erreferentzia bat ere, erabiltzaileak GNU GPLren eta lizentzia-dokumentu honen kopietara bideratzeko.
- d) Hauetako bat egin:
 - 0) Dagokion Gutxieneko Iturburu helarazi Lizentzia honen baldintzen arabera, baita Dagokion Aplikazio Kodea ere, forma egoki batean, eta behar diren baimen-baldintza guztiak, erabiltzaileak Aplikazioa birkonbinatu edo berriro lotu ahal izan dezan Bertsio Lotuaren bertsio aldatu batekin, Lan Konbinatu aldatu bat sortzeko, GNU GPLren 6. atalean zehazten den bezala Dagokion Iturburu helarazteko.
 - 1) Liburutegiarekin lotzeko, erabili liburutegi partekatuko mekanismo egoki bat. Mekanismo egoki bat da (a) exekuzio-denboran erabiltzailearen ordenagailuan lehendik dagoen Liburutegiaren kopia bat erabiltzen duena, eta (b) Liburutegiaren bertsio aldatu batekin –Bertsio Lotuarekin interfaze bateragarrikoa bada– ondo funtzionatu duena.
- e) Instalazio Informazioa eman, baina soil-soilik informazio hori GNU GPLren 6. atalak ezarritakoaren arabera eman beharko bazenu, eta soil-soilik informazio hori beharrezkoa den neurrian Lan Konbinatuaren bertsio aldatua, Aplikazioa Bertsio Lotuaren bertsio aldatu batekin birkonbinatuz edo berriro lotuz sortua, instalatzeko eta exekutatzeko. (4d0 aukera erabiltzen baduzu, Instalazio Informazioa Dagokion Gutxieneko Iturburuarekin eta Dagokion Aplikazio Kodearekin batera eman behar da. 4d1 aukera erabiltzen baduzu, Instalazio Informazioa GNU GPLren 6. atalean Dagokion Iturburu helarazteko zehazten den bezala eman behar duzu).

5. Liburutegi konbinatuak.

Liburutegi-eraztasunak –liburutegian oinarritutako lanak direnean– aparte jar ditzakezu liburutegi bakar batean, modu paraleloan, Aplikazioak ez diren eta Lizentzia honek babesten ez dituen beste liburutegi-eraztasun batzuekin batera, eta liburutegi konbinatu hori helarazi, zuk hautatutako baldintzen arabera, betiere honako bi baldintza hauek betetzen badituzu:

- a) Liburutegi konbinatuarekin batera, Liburutegian oinarritutako lan horren beraren kopia bat eman, beste liburutegi-eraztasun batzuekin konbinatu gabe eta Lizentzia honen baldintzen arabera helarazita.
- b) Ohar nabarmen bat erantsi liburutegi konbinatuari, horren zati bat Liburutegian oinarritutako lan bat dela adierazteko eta lan berberaren bertsio konbinatu gabea non aurkitu azaltzeko.

6. GNU Lizentzia Publiko Orokor Murriztuaren bertsio berrikusia.

Software Librearen Fundazioak Lizentzia Publiko Orokor Murriztuaren bertsio berrikiak edo berriak argitaratu ditzake noizean

behin. Bertsio berri horiek egungoaren antzekoak izango dira izaerari dagokionez, baina arazo edo kezka berriei aurre egin beharko dietenez, xehetasunen bat alda daiteke.

Bertsio bakoitzari bere bertsio-zenbaki bereizgarria ematen zaio. Liburutegiak, jaso bezala, zehazten badu GNU Lizentzia Publiko Orokor Murriztuaren bertsio-zenbaki bat «edo bertsio berriago bat» aplikatzen zaiola, aukera duzu bertsio-zenbaki horren zein Software Librearen Fundazioak geroago argitaratutako beste bertsioen baten baldintzak betetzeko. Liburutegiak, jaso bezala, ez badu zehazten GNU Lizentzia Publiko Orokor Murriztuaren bertsio-zenbakirik, Software Librearen Fundazioak argitaratutako GNU Lizentzia Publiko Orokor Murriztuaren bertsioetako edozein aukera dezakezu.

Liburutegiak, jaso bezala, zehazten badu ahaldun batek erabaki dezakeela GNU Lizentzia Publiko Orokor Murriztuaren etorkizuneko bertsiorik aplikatu ahal izango den, ahaldun horrek publikoki deklaritzen badu bertsio jakin bat onartzen duela, betiko baimena emango dizu, Liburutegirako bertsio hori aukeratzeko.